

Negozio eredu batek funtzionatzea ahalbidetzen duen hornitzaile eta bazkideen sareak definitu behar dira hemen. →

Irriberri proiektuak funtzionatzeko, ezinbestekoa da hornitzaile eta bazkideen sare sendo eta koordinatua izatea. Lehenik, gure bazkide estrategikoak Lanbide Heziketako zentroak dira, izan ere, bertako ikasleek egiten dituzte protesi-dentalaren diseinu, prestaketa eta laguntza teknikoaren inguruko praktikak. Zentro hauek ikasleen prestakuntza akademikoa bermatzen dute eta, aldi berean, gure proiektuari etengabeko talentu berria eskaintzen diote.

Bestalde, odontologo eta teknikari dental profesionalak gure bazkide giltzarriak dira, haiek baitira ikasleen lanaren gainbegiratze kliniko eta kalitate-kontrola bermatzen dutenak. Haien esperientziak prozesua segurtasun eta fidagarritasun osoz garatzea ahalbidetzen du. Horiez gain, osasun-zentro publiko zein pribatuak ere bazkide izan daitezke, protesiak banatu edo laguntza behar duten pertsonetara iristeko bideak eskainiz.

Hornitzaileei dagokienez, material dentaleko enpresak gure sareko pieza garrantzitsuak dira, protesiak egiteko beharrezko osagaiak modu eskuragarri eta ekonomikoan hornituz. Era berean, erakunde sozialak, gizarte-zerbitzuak eta GKE (ONG) ak gure aliatu dira, elkartasun-sarearen bidez proiektuaren jomugara iristen laguntzen dutenak eta benetan laguntza behar duten pertsonak identifikatzen dituztenak.

Azkenik, komunikazioari eta sentsibilizazioari dagokionez, hedabideak, tokiko elkarteak eta gazte-sareak bazkide funtsezkoak dira, Irriberri-ren mezua zabaltzeko, boluntario berriak erakartzeko eta gizarte-eragina handitzeko.

Laburbilduz, Irriberri-ren hornitzaile eta bazkideen sarea hezkuntza-zentroak, osasun-profesionalak, material-hornitzaileak, gizarte-erakundeak eta komunikazio-sareak uztartzen dituen ekosistema solidarioa da, proiektua modu eraginkorrean eta jasangarrian aurrera eramatea ahalbidetzen duena.